

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **14/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, ustelkeriaren aurkako borroka eta prebentzioari buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

14/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, ustelkeriaren aurkako borroka eta prebentzioari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek berresten dute eragile aktiboa izan nahi dutela gardentasunaren eta gobernu onaren tresnen eraginkortasuna etengabe hobetzeko. Hori dela eta:

1.1 Eusko Legebiltzarrari eskatzen diogu jarrai dezala ekimenak garatzen, hala nola Gardentasun eta Partaidetzaren lege-proposamena eta Praktika Onen aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko lege-proposamena.

1.2. Institutuzio guztiei eskatzen diegu jarrai dezatela hobetzen eta ezartzen ustelkeria edo/eta botere-nagusikeriaren aurkako borrokarako eta prebentziorako tresnak. Horretarako, aktiboki lan egingo dute Justiziarekin, zertarako eta baliabide publikoak ustez gaizki erabili diren kasuetan ahalik eta azkarren salatzea, ikertzea eta auziperatzea sustatze aldera.

1.3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu ezen, bere eskumenen esparruan, jarrai dezala behar diren baliabide material eta pertsonalak ematen Euskadiko Fiskaltzari, delitu ekonomikoen arloko Euskadiko fiskal delegatuari eta ustelkeria-delituak jazartzen dituen Ertzaintzaren unitateari, euren zereginetan hobetu dezaten eta diru publikoa xede pribatuetarako bidegabeki erabiltzearen aurka borrokatu dezaten; halaber, eskatzen diogu jarrai dezala betetzen Euskadiko Poliziaren 4/1992 Legearen laugarren tituluaren hirugarren atalean araututakoa, epaile, auzitegi eta fiskalei Justizia Administrazioarekiko mendetasun funtzionala duen polizia-unitate batez hornitzeari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**